

EIBARKO UDALA
GARAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUA ETA BERRIKUNTZA SAILA

Gogoeta eta planteamendu estrategikoa, 2024-2027

2024ko uztaila



I Aurkezpena

Gogoeta eta planteamendu estrategikoa

Eibarko Udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegu eta Berrikuntza Sailak 2024-2027 legegintzaldirako bere planteamendu estrategikoa sortu eta idatzi du.

Zehatz mehatz txosten honetan jasotzen da:

**1 Xedea, balioak
eta fokuak**

**2 Helburu
estrategikoak**

**3 Lan-ildo nagusiak,
eta egutegia**

**4 Adierazle-sorta
eta prozedura**



I Propositoa

1 Sailaren xedea, balioak eta jarduera-fokuak

Xedea

Sailaren xedea Eibarko garapen ekonomikoa bultzatzea da.

Eibar lanerako, enpresen garapenerako eta bizitzeko herri erakargarria izateko baliabideak eskaini eta proiektuak sustatzen ditugu, tokiko eragileekin elkarlanean.

Balioak

- Konpromisoa
- Jarrera ekintzailea
- Lankidetzatza
- Izaera berritzailea

6 jarduera-fokuak

- Enplegua, talentua eta formakuntza
- Ekintzaileritza
- Enpresa eta berrikuntza
- Merkataritza eta ostalaritza
- Turismoa
- Landa garapena



| Helburu estrategikoak

2 2024-2027 aldirako helburu estrategikoak

Sailak 2024-2027 aldirako 7 helburu estrategiko definitu ditu. Hauek:

1. EIBARREN ENPLEGUA ETA TALENTUA
SUSTATZEA

2. EIBARREN EKINTZAILTZA INDARTZEA

3. EIBARKO JARDUERA EKONOMIKOETAN
BERRIKUNTZA SUSTATZEA

4. TOKIKO MERKATARITZA DIBERTSIFIKATZEN ETA
MANTENTZEN LAGUNTZEA, ERDIGUNEAN ETA
AUZOETAN

5. EIBARREN TURISMO-SEKTOREA GARATZEKO
DINARRIAK DEFINITZEA

6. LEHEN SEKTOREA INDARTZEN
LAGUNTZEA

7. EIBARREN GARAPEN EKONOMIKORAKO
ILDO ESTRATEGIKO BERRIAK DEFINITZEA

I Lan-ildoak

2024-2027 aldian helburu estrategiko bakoitzerako garatu beharreko lan-ildo nagusiak

1. EIBARREN ENPLEGUA ETA TALENTUA SUSTATZEA

Gaur egun martxan daudenak eta jarraiak direnak

- 1.1. Dirulaguntzak: (1) Kontratazioa (Lanbide);
(2) Prestakuntza ekintzak.
- 1.2. Enplegu-programak.
- 1.3. FPB eta PEC-en kudeaketa.
- 1.4. Inklusio-mahaia, eragile ezberdinekin koordinatu, enplegurako bideratutako formazio-gaiak zehaztu eta bideratzeko.
- 1.5. STEAM proiektuak ikasleekin.

Berriak, datozen urteetan abiarazteko

- 1.6. FPB eta PEC-en kudeaketa aukera desberdinak aztertu, dagozkion erabakiak hartzeko.
- 1.7. Gabilondon enplegura bideratutako formakuntza-espazio anitz berria sortzea, bertan uztartuz: orientazio gunea, formakuntzarako espazioak, *maker-sormen* espazioa...
- 1.8. Enplegurako formakuntza eskaintza berriak bultzatzeko lanketa eta lobby lana egitea, inplikaturako eragileekin batera.

2. EIBARREN EKINTZAILTZA INDARTZEA

Gaur egun martxan daudenak eta jarraiak direnak

- 2.1. Ekintzailtzako dirulaguntza.
- 2.2. EHUNDU eta HELDU programak.
- 2.3. Toribio Echevarria sariak.
- 2.4. Eskualdeko Ekintzailtza Foroa.

Berriak, datozen urteetan abiarazteko

- 2.5. Hiru inkubategiak optimizatzeko lanketa berezia egitea BIC eta Debegesarekin: ezagutza, presentzia eta elkarlana.
- 2.6. Eibarko ekintzaileekin interlokuzio eta harreman zuzena izateko moduak arakatu eta definitzea.

I Lan-ildoak

2024-2027 aldian helburu estrategiko bakoitzerako garatu beharreko lan-ildo nagusiak

3. EIBARKO JARDUERA EKONOMIKOETAN BERRIKUNTZA SUSTATZEA

Gaur egun martxan daudenak eta jarraiak direnak

- 3.1. Dirulaguntzak: (1) IRAUN;
(2) Erronka teknologikoak.
- 3.2. Sportek Hub garatzen jarraitzea, Eibarri begira proiektuak zabal ditzakeen aukera berriak arakatuz.
- 3.3. Lehiakortasuna hobetzera zuzendutako enpresentzako programak garatzea.

Berriak, datozen urteetan abiarazteko

- 3.4. Tekniker, Debegesa, BIC, BPTD: aliantzak indartzea eta Eibarren garapenerako engranaje eta palanka izatea.
- 3.5. Innpulso Sarean izango dugun partaidetza definitzea.
- 3.6. Eibarko enprekin interlokuzio eta harreman zuzena landu.
- 3.7. Beste sektoreetarako berrikuntzarako lan-ildoak definitu eta horiek sustatzeko instrumentuak sortzea.

4. TOKIKO MERKATARITZA DIBERTSIFIKATZEN ETA MANTENTZEN LAGUNTZEA, ERDIGUNEAN ETA AUZOETAN

Gaur egun martxan daudenak eta jarraiak direnak

- 4.1. www.erosieibarren.eus proiektua.
- 4.2. Merkataritza sustatzeko eta mantentzeko kanpainak eta ekintzak egitea.

Berriak, datozen urteetan abiarazteko

- 4.3. Merkataritza-sektorearen joerak eta beharrak identifikatzea, tokiko elkarteekin eta prestakuntza-zentroekin lankidetzan.
- 4.4. Tokiko merkataritzan proiektu berritzaileak ezartzea (digitalizazioa, iraunkortasuna...).
- 4.5. Tokiko merkataritzan erreleboa bermatzeko estrategia landu.

2024-2027 aldian helburu estrategiko bakoitzerako garatu beharreko lan-ildo nagusiak

5. EIBARREN TURISMO-SEKTOREA GARATZEKO DINARRIAK DEFINITZEA

Gaur egun martxan daudenak eta jarraiak direnak

- 5.1. Turismo industrialari lotutako ekintzekin jarraitzea: (1) Bisita gidatuak;
- (2) Mapa industrialari jarraipena ematea;
- (3) Informazio-puntu, bulego edo elementuak jartzea.

Berriak, datozen urteetan abiarazteko

- 5.2. Eibarko turismo-estrategia definitzea
 - eskualdekoarekin lerratuta, eta herriko balioekin bat: industria, kultura, kirola-, inplikaturako eragileekin batera; eta garatzeko urratsak ematen hastea.

6. LEHEN SEKTOREA INDARTZEN LAGUNTZEA

Gaur egun martxan daudenak eta jarraiak direnak

- 6.1. Errebaleko ordenantza eta barne araudia eguneratzea.
- 6.2. Azoka puntualak antolatzea.
- 6.3. "Basarrixa Hurretik" programa garatzea.
- 6.4. Gipuzkoako Azoka Sarean aktiboki parte hartzea.
- 6.5. DEBEMEN-ekin eta baserritarrek interlokuzio eta harreman zuzena izateko abiatu den dinamikarekin jarraitzea.

Berriak, datozen urteetan abiarazteko

- 6.6. ERREBAL merkatua biziberritu.
- 6.7. Nekazaritza eta baserri mundua balioan jartzeko ekintzak eta kanpainak bultzatzea.



| Lan-ildoak

2024-2027 aldian helburu estrategiko bakoitzerako garatu beharreko lan-ildo nagusiak

7. EIBARREN GARAPEN EKONOMIKORAKO ILDO ESTRATEGIKO BERRIAK DEFINITZEA

Berriak, datozen urteetan abiarazteko

- 7.1. Garapen ekonomikorako ildo estrategiko berrien inguruko lanketa garatzea, herriko eragile desberdinekin lankidetzan, eta eredugarriak izan daitezkeen erreferentziak arakatzuz.



EIBARKO UDALA
GARAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUA ETA BERRIKUNTZA SAILA

Gogoeta eta planteamendu estrategikoa, 2024-2027

2024ko uztaila

